

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **68/2020 Foru Agindua, martxoaren 13koa, onesten duena udalek eta kuadrillek sustatutako kultura jardueretarako dirulaguntzen 2020ko deialdi publikoa**

Kultura eta Kirol Sailak Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean, 2020ko ekitaldian, udalek eta kuadrillek sustatutako kultura ekimenei diru babesa emango die.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko esparru bat ezartzea, sailak ematen dituen dirulaguntzen xede diren kultura ekimenak arautzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenak baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea udalek eta kuadrillek sustatutako kultura jarduerak garatzeko 2020ko ekitaldian indarrean egongo diren dirulaguntzetarako deialdi publikoari; laguntzaren xede izango dira emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa duten jarduerak. Deialdia gehienez ere 75.000 euroz hornitua dago, eta honen arabera arautuko da: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, zeinak onetsi baitzituen Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak (ALHAO, 134. zenbakia, 2019ko azaroaren 20koa).

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.462.90.01 (xedapen erreferentzia: 105.1041).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Kultura Ekintza Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean, gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duen arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiokete Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiokete bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko martxoaren 13a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
ANA M. DEL VAL SANCHO

*Kultura zuzendaria*  
M<sup>a</sup> INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

## Eranskina

Dirulaguntzen 2020rako deialdia, udalek eta kuadrillek eurek sustatutako kultura ekimenak gauza ditzaten

### Lehenengoa. Helburua eta xedea

Deialdi honen bitartez, dirulaguntzak eman nahi dira, lehiaketa bidez, eta horren helburua da Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen udalek eta kuadrillek 2020rako sustatutako kultura ekimenak garatzeko laguntzak ematea, betiere emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen dutenak babestuta, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera.

### Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 75.000 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastu aurrekontuko "Udalen eta kuadrillen ekimenak" izeneko 70.1.05.73.02.462.90.01 partidaren kontura ordainduko da.

Esleitzeko dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ezin izango ditu gaintu eranskin honen zazpigarren oinarrian berariaz zehaztutako ehunekoak, eta inola ere ez du gaintuko 4.000 euro erakunde eskatzaile bakoitzeko.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, baloratutakoan, 500 euro egiten ez duten eskaerak.

### Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

Erakunde onuradunak:

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeen udalak eta kuadrillak, Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

Baztertutako erakundeak:

Kanpoan geratuko dira Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak, zeinak onetsi baitzituen Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak, hirugarren klausulan zehaztutako egoeretan dauden erakundeak, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera zehatuak izan direnak ere.

### Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

1. Diruz lagundu ahal izango dira kultura sustatzeko jarduera programak, zeinen ezaugarriak esparru hauetan zehaztutakoari egokitu behar zaizkion:

1. Folklorea.
2. Eszena eta musika arteak.
3. Arte plastikoak, ikusmen arteak eta ikus-entzunezkoak.
4. Literatura, irakurketa eta liburuak sustatzekoak.
5. Ondarearen eta kulturaren zabalkuntza.

Lehentasuna emango zaie genero berdintasuna barnean hartu eta genero estereotipoak desagerrarazten laguntzen duten kultura programei.

Jarduera programa bakarrerako eskatu ahal izango da dirulaguntza, eta jarduera horren aurrekontua 5.000 euro edo gutxiago (BEZa barne) izango da. Programa horrek diruz lagundu daitezkeen esparruetako batekin baino ez du izango lotura, oinarri honetan adierazten den bezala taldekatuta.

2. Kultura arloan urtean 5.000 euro (BEZa barne) baino gutxiagoko aurrekontua daukaten udalek jarduera programa bakarrerako eskaera aurkeztu ahaliko dute, eta kasu horretan, aurreko puntuari adierazitako eremu diruz lagungarriren batekin baino gehiagorekin lotuta egon ahaliko da. Ezohiko egoera horretarako baimena berariaz eman beharko da organo eskudunaren ebazpen baten bidez.

Kasu horretan, udalak zehaztasun eta xehakapen nahikoarekin egiaztatu beharko du aurrekontutik zenbat diru esleitu den kultura arloko urteko gasturako.

Hala bada, deialdi honetako 2. apartatuko zazpigarren oinarrian ezarritako balioespen irizpideei dagokienez, baldin eta proiektu berean puntuazio desberdinetako jarduerak biltzen badira, proiektua balioetsiko da puntuazio handieneko jarduerari dagokionarekin.

3. Diru laguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, diru laguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira kontuan hartuko gastu hauek:

a) Entitatea mantendu, kudeatu eta funtzionamenduan edukitzeko gastu orokorrak.

b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

c) Bidaia, egonaldi, publizitate, ordezkaritza, protokolo, opari eta antzeko gastuak.

d) Edozein argitalpenen edizio gastuak, berdin diolarik zein euskarritan eginak diren (papera, CDa, weba eta abar), ezta ondoren egingo den ustiapena ere.

e) Dantzaldi eta jai, ospakizun, erromeria eta herriko jaien inguruko ekitaldiek sortutako gastuak, salbu eta Araban tradiziozkoak diren herri partaidetzako kultura ekintzak.

f) Aisialdiko eta/edo denbora-pasako jarduerak, jaiek eta jarduera ludikoek, kirol jarduerak eta espezifikoki kultura arlokoak ez diren beste batzuek sortutako gastuak.

Ez dira diruz lagunduko Arabako Foru Aldundiko edozein sailek zein haiei atxikitako edo haien eskumenekoak diren edozein erakundek sustatutako beste jarduera, programa edo ekimen batzuetan jasotako programak.

Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (40.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta horniketa edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzailei, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa, justifikazioan edo dirulaguntza eskaeran aurkeztutako direnen artekoa, eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeraturako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

1. - Eskaerak Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari aurkeztu behar zaizkio, I. eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera. Eranskin horretan, jarduera, zeinarentzat dirulaguntza eskatzen baita, zein datatan bukatuko den adieraziko da.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak.

— Egiaztagiri bat, erakundearen organo eskudunak eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakiarena, zeina eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen hartua izan beharko baita.

**b) Dokumentazio espezifikoa:**

- Jardueren programaren proiektua, balorazio irizpideen zati diren alderdi guztiak islatzen dituen (eranskin honen 2. puntuko zazpigarren oinarria), honako hauek banan-banan adieraziz:
  - Kultura programaren azalpen koherentea, honako hauek jasoko dituen: proiektuaren justifikazioa, bete nahi diren helburuak, jardueren xehetasunak, behar diren baliabideak eta programa norentzat izango den.
  - Zein hizkuntza erabiliko d(ir) en.
  - Proposamen berritzailea den, edo proposamena bera sendotzekoa den.
  - Programako jarduerak noiz egingo diren (egutegia).
- Jarduera programaren gastu eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. Diru sarreraren atalean zehaztu behar dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, erakundearen ekarpena, Kultura eta Kirol Sailari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, halakorik badago.
- Genero berdintasunaren ikuspegia sartzea diruz lagundu daitezkeen jarduera eta/edo programak garatzean, balioespen irizpideetan adierazten diren gorabehera guztiak adierazita, eta, batez ere, pertsonen buruzko informazioan datuak sexuka banatuta aurkeztu izana adierazita.

**Seigarrena. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak**

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua da espedientea izapidetzeko organo eskuduna.

**2. Balorazio irizpideak:**

A) Jarduera programak zenbateraino laguntzen duen kultura sustatzen, eranskin honen laugarren oinarrian deskribatzen diren kultura arloak oinarritzat hartuta; horri, gehienez ere, 35 puntu emango zaizkio, eta banakapen hau izango da kontuan:

- Kulturarekin zerikusia duten jardueren programazioa, zabalkundea eta erakusketa: 35 puntu.
- Kulturarekin zerikusia duten jardueren arloko prestakuntza eta sorkuntza programak: 25 puntu.

B) Jarduera programaren ekarpena kultura berrikuntzari edo lurraldearen intereserako kultura proposamenak finkatzea: gehienez ere, 20 puntu. Hona banaketa:

- Jardueraren izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna eta udalerrian antzeko jarduerarik ez egitea: 20 puntu.
- Kultura proposamenak ibilbide luzea izatea eta finkatzea. Jarduera gizartean errotuta egotea bost urtez baino luzaroagoan: 10 puntu.
- Aurreko irizpideetakoren bat ez betetzea: 0 puntu

C) Aurkeztutako proiektuaren kalitatea. Lortu nahi diren helburuen azalpen koherente eta argia, programa osatzen duten jardueren xehetasunak, giza baliabideen eta baliabide materialak, teknologikoak..., garatu beharreko jarduera bermatzen dutenak: gehienez, 15 puntu. Hona banaketa:

- Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherentea eta argia: 6 puntu.

– Programa osatzen duten jardueren xehetasunak: 4 puntu.

– Baliabideak izatea: 5 puntu.

– Aurreko alderdietako bat ere ez adieraztea: 0 puntu

D) Hizkuntzak: gehienez, 10 puntu.

– Bi hizkuntzatan eta, hala badagokio, euskaraz egindako jarduerak: 10 puntu.

– Zehazten ez bada: 0 puntu.

E) Genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea diruz lagundu daitekeen jarduera eta/edo programen garapenean: gehienez, 20 puntu. Hona hemen banaketa:

– Berdintasun plana izatea edo berdintasunerako neurriak dituen konpromiso idatzia: 3 puntu.

– Programan inplikaturako pertsonen genero prestakuntza: 2 puntu.

– Berdintasunari buruzko edukiak jasotzen dituzten programa edo kultura jarduerak: 5 puntu

– Dirulaguntzarekin zerikusia duten agirietan idatzizko eta ikusizko hizkuntza ez sexista erabiltzea: 3 puntu.

– Pertsonen informazioa sexuaren arabera berezita egotea: 7 puntu.

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren araberrako dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta.

Puntu kopurua	Dirulaguntzaren ehunekoa
0tik 50era	0
51tik 65era	50
66tik 75era	70
76tik 100era	80

Eskaera kopurua eta eman beharreko dirulaguntzak direla-eta dirulaguntzaren guztirako zenbatekoak gainditu egingo balu deialdiaren diru hornidura, eta beraz, beharrezkoa balitz dirulaguntzen zenbatekoa gutxitzea, neurri berean gutxituko lirateke dirulaguntzaren erakunde onuradun guztien artean.

### Zortzigarrena. Ebazpena

1. Balorazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Kultura zuzendaria izango da balorazio batzorde horren burua, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe. Batzordekideren batek, behintzat, emakumeen eta gizonen berdintasun arloari buruz jakin beharko du, edo bestela, esperientzia izan hura praktikoki aplikatzean.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Kultura Ekintza Zerbitzuak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer erakunde eskatzaileri eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileri, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

7. Hainbanaketa egitearen ondorioz dirulaguntza murrizten den kasuetan, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunari eskatu ahal izango zaio bere eskaera berriro formulatu dezala, konpromisoak eta baldintzak eman ahal zaion dirulaguntzara egokitzeko.

8. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

#### **Bederatzigarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea**

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza. Dirulaguntza guztia batera emango da.

Eskuarki, diruz lagundutako jarduera bukatutakoan, aurkeztu ahal izango dira justifikazio agiriak eta eskatu ahal izango da dirulaguntza kobratzeko, gehineko epea, urtekoa, noiz bete zain egon gabe. Izan ere, hori da dirulaguntza kobratzeko epeak bizkortzeko era egokia.

Aurrekoa gorabehera, egiaztagirak aurkezteko gehieneko bi epe ezarri dira:

a) 2020ko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren kultura ekintzen frogagiriak aurkezteko azken eguna 2020ko urriaren 30a izango da.

b) 2020ko azken hiruhilekoan amaitzen diren kultura ekintzen frogagiriak aurkezteko azken eguna 2020ko abenduaren 18a izango da.

Eskaeran puntuatutako balioespen irizpideak partez edo osorik ez betetzeak berekin ekar lezake lortutako puntuazioa eta dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu behar izatea, eta, ondorioz, dirulaguntza minoratu behar izatea.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2021eko otsailaren 19rako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

Diruz lagundutako jarduera programak baterako finantzaketa izan badu, aurkeztu diren fakturek eta gainerako agiriek Kultura Ekintza Zerbitzuaren zigilua izango dute. Bertan adieraziko da zer kopuru egotzi zaion zerbitzuak diruz lagundutako jarduera programaren justifikazioari.

Aurkeztu beharreko agiri guztiak jatorrizkoak izango dira edo, bestela, fotokopia konpultsatuak, eta diruz lagundu ahal den aurrekontuaren zenbatekoa edo gehiago egingo dute.

Dirulaguntzak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hargarrien klausulan (Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrak onestekoa) ezarritakoaren arabera justifikatu beharko dira.

2. Gastuak frogatzeko, entitate onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, zeina arautzen baita Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 28.1 eta 2 artikuluan eta Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 10. artikuluan, eta, horretarako, nahitaez bete beharko dute II. eranskina.

Honela egongo da osatuta justifikazio kontu erraztua:

1) Jardueren memoria bat, justifikatzen duena dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta honako hauek jasotzen dituen: egindako ekintzak, betetako helburuak edo lortutako emaitzak, erabilitako baliabideak, noiz gauzatu diren eta zein hizkuntza erabili den.

Hala badagokio, jardueraren genero eragina ere azalduko da memorian. Datuak, bildu bada, sexuaren arabera bereizita adieraziko dira pertsonen dagokien informazioan, eta eskaeran jaso eta zenbatu ziren genero berdintasunari buruzko alderdiak esplikatuko dira (berdintasunari buruzko edukiak, hizkera inklusiboa, datuak bereizita, genero eragina...).

2) Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

5) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira jatorrizko fakturak edo agiri baliokideak, edo fotokopia konpultsatuak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000 euro gainditzen badute (BEZa aparte), eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak.

Instrukzio organoak eskatu ahal izango dizkie erakunde onuradunei egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak, dirulaguntza bere xederako erabili dela behar bezala egiaztatuta ahal izateko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Era berean, PEFZari (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) buruzko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuak justifikatzeko.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzen diren egiaztekin dagokienez, ordainketaren froga agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

– Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritzaren guneeetakoak, autobideetakoak, bidaiaren txartelak eta abar); edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigilu eta guzti, ordainketa egin dela ziurtatzen dutenak.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaloa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

#### **Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo honi atxikitako erakundeetatik helburu bererako jaso ditzaketen dirulaguntzekin. Hala ere, dirulaguntzaren emakida arautu duten oinarri orokorretan ezarritakoa beteko da.

#### **Hamaikagarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.



 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p><b>Udalek eta Kuadrillek sustatuko kultur jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako eskaera</b></p> <p><b>2020</b></p> <p>Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales promovidas por Ayuntamientos y Cuadrillas</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Cultura y Deporte</p>

Kultura eta Kirol  
SailaDepartamento de  
Cultura y Deporte

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

**ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>**

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 IKZ CIF
  NAN DNI
  AIZ NIE
  Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea Mujer
  Gizona Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>**

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN DNI
  AIZ NIE
  Besteren bat Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea Mujer
  Gizona Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Udalek eta Kuadrillek sustatuko kultur jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako eskaera</b></p> <p><b>2020</b></p> <p>Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales promovidas por Ayuntamientos y Cuadrillas</p>
--	--

Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
Cultura y Deporte

**BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS <sup>(3)</sup>**

(Banku helbideratzearen datuak aidatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

<b>BANKUA ■</b>	
<b>BANCO</b>	
<b>IBAN</b>	<b>SWIFT</b>

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
<p><b>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</b></p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</b></p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p><b>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</b></p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan</p> <p><b>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <u>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</u></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 2/4



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

### Udalek eta Kuadrillek sustatuko kultur jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako eskaera

## 2020

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales promovidas por Ayuntamientos y Cuadrillas

Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
, Cultura y Deporte

#### JARDUEREI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DE LAS ACTIVIDADES

Jardueraren / Programaren izena Zenbatekoa Denominación de la actividad / Programa	Aurrekontua BEZa barne Presupuesto IVA incluido	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Jardueraren hasiera eguna Fecha inicio de la actividad	Jardueraren amaiera eguna Fecha de finalización de la actividad

#### ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- Egiaztagiri bat, erakundearen organo eskudunak gastua baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakiarena ■**  
Certificación del Acuerdo del Órgano competente, autorizando la solicitud y financiación parcial del gasto
- Jarduera edo programaren proiektua; honakoak adieraziko dira: jardueren deskribapena, horiek egiteko egutegia, eskuragarri dauden baliabideak, genero berdintasuna eta abar ■**  
Proyecto de las actividades o programas, consignando: descripción, calendario de ejecución, recursos disponibles, igualdad de género, etc.
- Programak edo jarduerak eragindako diru sarreraren aurrekontu xehatua: beste erakunde batzuei eskatutako dirulaguntzak, erakundearen ekarpena eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eskatutako diru kopurua ■**  
Presupuesto detallado del programa o actividad, debiéndose precisar en el apartado de ingresos: las subvenciones solicitadas a otras administraciones, la aportación de la entidad y la cantidad solicitada al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Oharra (1)

Nota (1)

Orria ■ Hoja 3/4



Arabako Foru  
 Aldundia  
 Diputación  
 Foral de Álava  
 www.araba.eus

**Udalek eta Kuadrillek sustatuko kultur jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako eskaera**  
**2020**  
 Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales promovidas por Ayuntamientos y Cuadrillas

Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
Cultura y Deporte

**Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezereztzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).**

**Oharra (2)**

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

**Oharra (3)**

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagokion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

**Oharra (4)**

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT

**LEHENENGOA.**

Ez ordezkatzan dudan elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela sexua dela eta inor bazterten, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.**

Ez ordezkatzan dudan elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela zigorririk izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta inor bazterteagatik, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 VitoriaGasteiz (Álava).

**Nota (2)**

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

**Nota (3)**

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

**Nota (4)**


En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

**PRIMERO.**

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**SEGUNDO .**

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava  
www.araba.eus

**2020**

**Udalek eta Kuadrillek sustatutako kultur jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako eskaera**  
**II. ERANSKINA – JUSTIFIKAZIO KONTU ERRAZTUA**

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales promovidas por Ayuntamientos y Cuadrillas

**ANEXO II – CUENTA JUSTIFICATIVA SIMPLIFICADA**

**Kultura eta Kirol Saila** | Departamento de Cultura y Deporte

**1. JARDUNAREN MEMORIA**  
Memorian justifikatu behar du dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta adierazi zeintzuk diren egindako ekintzak eta lortutako emaitzak. Hala bada, gogoratu jardueraren genero inpartatua adieraziko da, datuak sexuka zehaztuta, bai eta genero berdintasunaren arloko lortuen ere, eskateran aurreratuak datuen arabera.

**2. EGINDAKO GASTUEN ZERRENDA IZENDUNA:**  
Kultura jarduerak egiteko 2020ko dirulaguntzetarako deialdi publikoan ..... (e)ko Udalako/Kuadrillak .....  
..... euro jaso ditu, eta ..... euroko aurrekontua izan du, guztira, ..... Jaunak/Andreak .....  
Dirulaguntza honi dela eta, ..... erakundea ordezkatzuz .....

**ZIURTATZEN DU:**  
Jasotako dirulaguntzaren xedea bete dela, golan esandako datuak egiazkoak direla, jarduera egiteko erabili dela dirulaguntza, eta ezarritako epean egin dela jardura. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharra aitortu da erakundearen kontabilitatean. Gastuak behetako taulan zehazten dira.

Faktura zk. eta lutzate data Nº factura y fecha de emisión	Hornitzailea Proveedor	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa Importe (1)	BEZ IVA (2)	PEEZ IRPF (3)	Garbia Neto (1+2-3)	Guztira Total (1+2)	Ordaineta eguna Fecha de pago (betar. ordenan) (en euroz)

Jatorrizko fakturak edo agiri baliokideak erantsi direla, bankak edo gastu kontzeptuen arabera multzokatuta 1.000,00 euro gaintzen dituztenak (BEZa sartu gabe), baita horek ordaindu izanaren frogagatik ere.

Honako dirulaguntza, laguntza edota diru sarrera hauek lortu direla xede bererako: **BAI**

Que para la misma finalidad SI se han obtenido las siguientes subvenciones, ayudas y/o ingresos:

Erakundea Entidad	Zenbatekoa Importe

Ez dela beste inongo dirulaguntza, laguntza edo diru sarrerarik jaso.

No se ha obtenido ninguna otra subvención, ayuda o ingreso.

....., 2020ko .....aren .....a En .....a ..... de 2020

Sinadura eta zigilua  
Firma y sello